

GOBERNU BATZARRA

2015. 04. 17

Alkatea:

Ibai Iriarte San Vicente

Zinegotziak:

**Lore Agirre Zipitria
Hasier de los Rios Soraluze
Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fer-nandez.**

Idazkaria:

Jose Luis Unanue Ugalde

Kontuhartzaitzako Teknikaria:

Paulino Alonso Eraso

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamabosteko apirilaren hamazazpian goizeko 10:00etan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.

1.- Aurreko akta onartzea.

2.- 2015/520 Alkate dekretua berrestea.

**3.-Tolosako Babarrunaren kofradia.
2014ko dirulaguntza.**

**4.-Tolosaldea Garatzen S.A.,Sozietateari
dirulaguntza.**

5.- 2015/544 Alkate dekretua berrestea.

6.- lurreamendi egoitza: Martxoko faktura.

**7.-Zergaren ordainketa zatikatzea: Hainbat
eskaerak.**

8.- Intxur Auzo Elkarte.- Aldaba.

9.- Alur Txiki Auzo Elkarte.- Urkizu

**10.-7/2015 zenbakia duen faktura-
zerrenda.**

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2015eko martxoaren 27an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.- 2015/520 Alkate dekretua berrestea.

Ilarki Elkargoari martxoko etxez etxeko zerbitzuaren orduen kontzeptuan aurkeztutako 71.562,04 €.ko faktura onartu zen **2015/520** Alkte dekretuaren bidez.

Hau kontuan izanik, Gobernu Batzarreko kideak berretsi egin dute, aho batez, **2015/520** dekretua.

3.-Tolosako Babarrunaren Kofradia. 2014ko dirulaguntza

Tolosako Udalaren eta Tolosako Babarrunaren Kofradiaren arteko hitzarmena sinatu zen 2012ko irailaren 25ean, Tolosako Babarruna ezagutarazteko.

Honen baitan, jarduera sozio-kulturalak eta azoketako jarduerak finantzatzeko aurrekontu partida bat jarri du Udalak 2015eko Udal aurrekontuetan, 2.140 eurokoa.

Tolosako Babarrunaren Kofradiak, 2015eko martxoaren 23an, ondorengo dokumentazioa aurkeztu du, hitzarmenean adierazten den moduan.

- 2014ean burututako ekintzak
- 2015eko likidazioa

Aipatutakoa ikusita, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- Tolosako Babarrunaren Kofradiari 2.140 €-ko dirulaguntza ematea jarduera sozio-kultural eta azoketako jarduetarako.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Tolosako Babarrunaren Kofradiari eta Kontuhartzaitzari.

4.-Tosaldea Garatzen, S.A.,Sozietateari dirulaguntza.

Tosaldea Garatzen, S.A., erakundeak Lehiberri Zentroaren eraikuntza sustatu zuen 2010 eta 2013 urte bitartean. Eraikuntza lanen ondorioz, Tolosako udalak ondorengo tasa eta zergak likidatu zizkion:

- Obra handien baimena: 6.695 euro
- Kartografia: 1.039,00 euro

- Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga: 39.463,97 euro
- Jarduera lizentzia: 1.140,40 euro
- Lehen erabilerako lizentzia: 5.919,60 euro.

Likidazio hauetatik, jarduera lizentzia bakarrik ordaindu zuen. Beraz, gaur egun, **53.117,57** euroko zorra du Tolosaldea Garatzen, S.A., erakundeak Tolosako udalarekin.

2014ko apirilaren 8an, Tolosaldea Garatzeneko gerenteak Lehiberri Zentroaren sustapena interes orokorreko proiektutzat jo dezala eskatu zuen, eta, ondorioz, Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga eta Lehen erabilerako lizentzia ordaintzetik salbuestea eskatu zuen.

Obra baimenaren, kartografiaren eta lehen erabilerako lizentziaren tasei dagokienez, Ordenantza Fiskalak ez du aurreikusten salbuespen edo hobaririk elkarte hauentzako.

EIOZ-ri dagokionez, Foru Arauak, 5.1. artikuluan, zera dio:

“...udalerriek honako hoberiak arautu ahal izango dituzte beren ordenantza fiskaletan zerga kuotaren gainean: a) 100eko 95era bitarteko hoberia, eraikuntzak, instalazioak edo obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik.”

Kasu honetan, EIO Zerga 39.463,97 euro denez, hoberia (%95) 37.490,77 euro izango litzateke. Tolosako Ordenantza Fiskalek, ordea, ez dute hobaririk aurreikusten obrak interes berezikoak edo udal onurakoak diren kasuentzako. Hau da, hoberi hau ez da aplikagarria.

Hori dela eta, Gobernu Batzarrak, 2015eko martxoaren 27an, hobaririk ez ematea erabaki zuen.

Horren aurrean, Tolosaldea Garatzen, S.A., erakundeak, 2015eko martxoaren 31n, Tolosako udalak Lehiberri interes orokorreko proiektutzat jo dezala eskatu du eta, ondorioz, **54.257,97** eurotako dirulaguntza (tasa eta zerga guztien kopurua) ematea.

Tolosako udaleko dirulaguntzen ordenantza orokorrak, 13. artikuluan, zera dio:

“Hurrengo subentzioak eman ahal izango dira zuzeneko erregimenean:

c) Ohizko kanpoko izaerarekin:

c.1. Behar bezela justifikatutako interes publiko, sozial, ekonomiko, heziketako, kultural, zientifiko, humanitario edo bestalako arrazoiak frogatzen dituzten subentzioak, jasotzailearen ezaugarriengatik norgehiagoka publikoaren aukerarik ez badago, onuradun bakarra edo

onuradun talde bakarra dagoelako gaitua subentzioaren xedea gauzatzeko. "

Tolosaldea Garatzen S.A., eskualdeko garapen agentzia da, eskualdeko 28 udalek enplegu politika aktiboak eta eskualdeko garapen proiektuak bideratzeko 1994an sortutakoa.

Tolosaldea Garatzen S.A., erakundeak Tolosako Udalarekin batera 2010 eta 2013 bitartean Lehiberri Zentroaren sorrera eta eraikuntza sustatu du.

Ukaezina da Lehiberri zentroaren interes publiko, sozial eta ekonomikoa eskualde osoan.

Hori dena kontuan harturik, Tolosaldea Garatzen ezin zaio EIOZan %95eko hobaria eman, Tolosako Ordenantza Fiskalek horrelako kasuak ez dituelako aurreikusten. Baina, Lehiberri duen interes publikoa kontuan hartuz eta Kontuhartzaileak egin duen txostenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Tolosaldea Garatzen **37.490,77** euroko dirulaguntza ematea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Tolosaldea Garatzen, S.A., erakundeari eta Kontuhartzaitzari.

5.- 2015/544 Alkate dekretua berrestea.

Kontuhartzaitzak 6. fakturen erlazioa prestatu du, **131.440€koa**, eta **2015/544** zenbakia duen Alkate dekretuaren bidez onartu zen.

Hau kontuan izanik, Gobernu Batzarreko kideak berretsi egin dute, aho batez, **2015/544** dekretua.

6.- Iurreamendi egoitza: Martxoko faktura.

Iurreamendi egoitzak martxoko kuoten likidazioa aurkeztu du.

Hori horrela, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Iurreamendi egoitzari ordaintzea martxoko kuoten likidazioari dagokion zenbatekoa, **22.162,68 €**-koa, honela banatuta:

Autonomoen kostua: 784,92 €
Elbarrien defizita: 21.377,76 €

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuari.

7.- Zergaren ordainketa zatikatzea: Hainbat eskaerak.

J.D.T.ren eskaera.

2015eko apirilaren 14an, M.A.I.U.k, **J.D.T.**ren izenean, 0373-CLG ibilgailuaren zergaren ordainketa (205,25 €) 3 hilabeteetan zatikatzea eskatu du.

Tolosako Ordenantza Orokorreko, Zergak eta Udal Zuzenbide publikoaren bestelako sarrerak kudeatzeko eta biltzeko ordenantzak, bere 2. eranskinak, 150 eta 400 euroko zorretan aplazamendua edo zatikatzea eskatzeko gehienezko epea 3 hilabete direla dio.

9.artikuluko 5. atalak dio: *“Atzeratzeak edo zatikatzeak indarrean dagoen berandutze interesa sortuko du.”*

Beraz, aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- **J.D.T.**ren izenean dagoen 0373-CLG ibilgailuaren zergaren ordainketa (205,25 €) 3 hilabeteetan zatikatzea.

BIGARRENA.- Zatikatzeko honen ondorioz (espedientean azaltzen dira epeak eta kopuruak), berandutze interesak kobratzea.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitza departamentuari eta interesatuari.

.....

N.E.O.ren eskaera.

2015eko apirilaren 14an, M. L. M.ek, **N. E. O.**ren izenean, NA-3293-AP ibilgailuaren zergaren ordainketa (205,25 €) 3 hilabeteetan zatikatzea eskatu du.

Tolosako Ordenantza Orokorreko, Zergak eta Udal Zuzenbide publikoaren bestelako sarrerak kudeatzeko eta biltzeko ordenantzak, bere 2. eranskinak, 150 eta 400 euroko zorretan aplazamendua edo zatikatzea eskatzeko gehienezko epea 3 hilabete direla dio.

9.artikuluko 5. atalak dio: *“Atzeratzeak edo zatikatzeak indarrean dagoen berandutze interesa sortuko du.”*

Beraz, aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- N. E. O.ren izenean dagoen NA-3293-AP ibilgailuaren zergaren ordainketa (205,25 €) 3 hilabeteetan zatikatzea.

BIGARRENA.- Zatikatzeko honen ondorioz (espedientean azaltzen dira epeak eta kopuruak), berandutze interesak kobratzea.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailetza departamentuari eta interesatuari.

.....

E.E.A.ren eskaera.

2015eko apirilaren 8an, J.M.E.A.k, **E.E.A.**ren izenean, L.M.E.P.ren herentziarengatik pasatako gainbakioaren likidazioa (672,97€) zatikatzea eskatu du.

Tolosako Ordenantza Orokorreko, Zergak eta Udal Zuzenbide publikoaren bestelako sarrerak kudeatzeko eta biltzeko ordenantzak, bere 2. eranskinak, 400 eta 6.000 euroko zorretan aplazamendua edo zatikatzea eskatzeko gehienezko epea urte 1 dela dio.

9.artikuluko 5. atalak dio: *“Atzeratzeak edo zatikatzeak indarrean dagoen berandutze interesa sortuko du.”*

Beraz, aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- E.E.A.ri gainbalioaren likidazioaren ordainketa (672,97€) 12 hilabetetan zatikatzea.

BIGARRENA.- Zatikatzeko honen ondorioz (espedientean azaltzen dira epeak eta kopuruak), berandutze interesak kobratzea.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailletza departamentuari eta interesatuari.

.....

P.L.V.ren eskaera.

2015eko apirilaren 14an, **P. L. V.**ek SS-9102-BJ ibilgailuaren zergaren ordainketa (146,60 €) atzeratzea eskatu du. Gaur egun dirusarrerik ez dituela dio eta, lortzen dituenean, ordainduko duela.

Tolosako Ordenantza Orokorreko, Zergak eta Udal Zuzenbide publikoaren bestelako sarrerak kudeatzeko eta biltzeko ordenantzak, bere 2. eranskinak, zorraren aplazamendua edo zatikatzea eskatzeko gutxienezko kopurua 150 euro direla dio. Kasu honetan, zorra ez da kopuru horretara iristen.

Aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Ez zatikatzea **P. L. V.**ren izenean dagoen SS-9102-BJ ibilgailuaren zergaren ordainketa (146,60 €) koa.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailletza departamentuari eta interesatuari.

.....

J.Ch.ren eskaera.

2015eko apirilaren 14an, X. L. Ch. J.k, **J. Ch.**ren izenean, 8445-GBS ibilgailuaren zergaren

ordainketa (263,90 €) 2 hilabeteetan zatikatzea eskatu du.

Tolosako Ordenantza Orokorreko, Zergak eta Udal Zuzenbide publikoaren bestelako sarrerak kudeatzeko eta biltzeko ordenantzak, bere 2. eranskinak, 150 eta 400 euroko zorretan aplazamendua edo zatikatzea eskatzeko gehienezko epea 3 hilabete direla dio.

9.artikuluko 5. atalak dio: *“Atzeratzeak edo zatikatzeak indarrean dagoen berandutze interesa sortuko du.”*

Aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emanako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- J. Ch.ren izenean dagoen 8445-GBS ibilgailuaren zergaren ordainketa (263,90 €) 2 hilabeteetan zatikatzea.

BIGARRENA.- Zatikatze honen ondorioz (espedientean azaltzen dira epeak eta kopuruak), berandutze interesak kobratzea.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailtza departamentuari eta interesatuari.

.....

M.A.I.U.ren eskaera.

2015eko apirilaren 14an, **M^a A. I. U.**k 0296-BKR ibilgailuaren zergaren ordainketa (87,95 €) 3 hilabeteetan zatikatzea eskatu du.

Tolosako Ordenantza Orokorreko, Zergak eta Udal Zuzenbide publikoaren bestelako sarrerak kudeatzeko eta biltzeko ordenantzak, bere 2. eranskinak, zorraren aplazamendua edo zatikatzea eskatzeko gutxienezko kopurua 150 euro direla dio. Kasu honetan, zorra ez da kopuru horretara iristen.

Beraz, aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Ez zatikatzea **M^a A. I. U.**ren izenean dagoen 0296-BKR ibilgailuaren zergaren ordainketa (87,95 €).

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailletza departamentuari eta interesatuari.

8.- Intxur Auzo Elkartea.- Aldaba.

Tolosako Udalak eta Aldaba auzoko Intxur auzo elkartearen arteko hitzarmena sinatu zen 2014ko urriaren 31n, auzoaren garapeneko helburu zerrenda gauzatzeko.

Honen baitan, Gizarte, Kultur, Kirol eta Auzoko Jaien jarduerak finantzatzeko aurrekontu partida jarri du Udalak 2015eko Udal aurrekontuetan.

Intxur Auzo Elkarteak, 2015eko martxoaren 4an, ondorengo dokumentazioa aurkeztu du, hitzarmenean adierazten den moduan.

- 2015eko ekintzak
- 2015eko aurrekontua

Beraz, Ingurumen Teknikariak egin duen txostenarekin bat etorritz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Intxur Ekarteari dirulaguntza ematea Gizarte, Kirol eta Auzoko Jaien jardueretarako. Zenbatekoa: 6.000 €-koa da eta kopuru honetatik %50a aurreratzea.

BIGARRENA.- Adieraztea, dirulaguntza zuritzeko, ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko dizkiola Udalari.

- Urteko ekintzen behin betiko memoria
- Gastu eta diru-sarreraren likidazioa.
- Fakturak

- Gizarte Segurantzaren eta Ogasuneko ziurtagiriak.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Intxur Auzo elkarteari eta Kontuhartzailetzari.

9.- Alur Txiki Auzo Elkartearen Urkizua.

Tolosako Udalak eta Urkizua eta auzotxikia auzoetako Alurtxiki auzo elkartearen arteko hitzarmena sinatu zen 2014ko irailaren 23an, auzoaren garapenerako helburu zerranda gauzatzeko.

Honen baitan, Gizarte, Kultur, Kirol eta Auzoko Jainen jarduerak finantzatzeko aurrekontu partida jarri du Udalak 2015eko Udal aurrekontuetan.

Alur Txiki Elkarteak, 2015eko urtarrilaren 27an, ondorengo dokumentazioa aurkeztu du, hitzarmenean adierazten den moduan.

- 2015eko ekintzak
- 2015eko aurrekontua

Ingurumen Teknikariak egin duen txostenarekin bat etorritik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Urkizuko Alur Txiki Elkarteari dirulaguntza ematea Gizarte, Kirol eta Auzoko Jainen jardueretarako. Zenbatekoa, 6.000 € dira eta kopuru honetatik %50a aurreratzea.

BIGARRENA.- Adieraztea, dirulaguntza zurrizteko, ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko dizkiola Udalari.

- Urteko ekintzen behin betiko memoria
- Gastu eta diru-sarreraren likidazioa.
- Fakturak
- Gizarte Segurantzaren eta Ogasuneko ziurtagiriak.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Urkizuko Alur Txiki elkarteari eta Kontuhartzaitzari.

10.- 7/2015 zenbakia duen faktura- zerrenda.

Kontuhartzaitzak **7/2015** faktura zerrenda aurkeztu du; **71.003,20** €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- 7/2015 faktura zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 11:15etan.

ALKATEA

IDAZKARIA